



Micaela Portilla Saria

Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko tesi onenaren Micaela Portilla Vitoria Sariaren XII. Edizioaren —2023— epaimahaia bildu da eta, deialdi honetara aurkeztu diren bederatzi tesiak aztertu ondoren, erabaki du **Micaela Portilla Saria 2023 honako tesiari ematea:**

**Matematika, hezkuntza eta generoa gurutzatzen diren lekuak
Ahots feministek lagundutako kartografia bat**

Autorea

Uzuri Albizu Mallea

Zuzendaria


Mila Amurrio Velez



LABURPENA

Matematika, hezkuntza eta generoa gurutzatzen diren lekuak Ahots feministek lagundutako kartografia bat

Doktore tesi honek matematika-hezkuntzan generoak hartzen dituen formak arakutzen ditu, gaurko zein etorkizuneko hezitzaileen diskurtso, ekintza eta esperientzietan oinarrituz. Matematikaren, hezkuntzaren eta generoaren arteko gurutzatzeak garatzen direneko eguneroko baldintzak aztertzen ditu, autoreak ikasleekin partekatzen duen matematika-ikasgela agertoki behinentzat hartuta. Plano teorikoan, matematikaren eta generoaren arteko elkarreragin historikoen inguruko hausnarketa bat proposatzen du, baita matematikak zein matematika-hezkuntzak gizartearen modernizazioan izandako paperaren ingurukoa ere. Teorizazio horiek agerian uzten dute, besteak beste, ezagutza matematikoaren eta matematika-hezkuntzaren izaera soziala. Plano metodologiko eta epistemologikoari dagokionez, kokaleku historiko eta politiko jakin batzuek presentzia berezia dute ikerketan, erdigunean jartzen baititu genero-posizio subalternoetatik edota posizionamendu feministetatik diharduten ahotsak. Halaber, Foucaultek boterearen inguruan egiten duen irakurketari jarraituz, matematika-hezkuntzaren baitako genero dinamikak ezaugarritzeaz gain, dinamika horiei aurre egiteko saiakerak ere nabarmentzen ditu. Hala, matematikak gizartean zein eskolan duen pribilegio posizioa problematizatzen du tesiak, eta genero-estereotipoek matematika-hezkuntzan duten presentzia eta inpaktua ezaugarritzen. Matematika-ikasgeletan aurki daitezkeen partaidetza-eredu batzuk ere deskribatzen ditu, eta inklusioaren galga ala akuilu diren ebatzi. Azkenik, matematika-hezkuntzan hutsegitea kudeatzeko zenbait moduk maskulinitate hegemonikoarekin dituzten loturak identifikatzen ditu, zaurgarritasunari leku egiteak eskain ditzakeen inklusiorako aukerak esploratuz orobat. Finean, matematika-hezkuntzaren baitako genero desberdinkerien ardura emakumeen gain kokatzeko joera asimilazionisten aurrean, tesiak foku aldaketa bat proposatzen du, matematika-hezkuntza inklusiboagoa izango bada, eraldatu beharrekoa diziplina bera dela argudiatuz.



Accesita

Los surcos del placer. Desborfamientos, prácticas y trasformaciones feministas

Autorea

Laura Muelas de Ayala

Zuzendaria

Mari Luz Esteban Galarza

LABURPENA

El presente trabajo abarca la configuración, significados, conflictos y experiencias sobre prácticas feministas en torno al placer, o prácticas de placer en entornos feministas. Partiendo de una conceptualización del placer que incluye, pero excede, con mucho, la sexualidad, se ha llevado a cabo una etnografía en el contexto del movimiento feminista, sobre todo en el País Vasco, para conocer cuáles son los procesos de placer en los que están inmersas las feministas. Por otro lado, se analiza de qué manera los colectivos y el movimiento feminista en general conceptualizan, resignifican, producen, reproducen, cuestionan o transforman estas prácticas, atendiendo a los conflictos, confrontaciones, continuidades y resistencias que establecen con los discursos y en los diferentes contextos sociales que habitan. Metodológicamente, se ha practicado la autoetnografía como técnica y proceso para habitar la investigación, que ha consistido en un trabajo de campo que ha abarcado más de cinco años (2015-2020), en el que se han realizado 18 entrevistas en profundidad y documentado más de 40 eventos, entre otras muchas oportunidades para la recogida de datos. El placer se ha desvelado como un elemento clave en las reivindicaciones feministas, un proceso creativo y político a partir del cual se pueden dar transformaciones sociales. Pero, como todo proceso corporal, está social y culturalmente dispuesto, por lo que distintas pugnas inundan, confrontan y construyen las diferentes dimensiones del placer.



Accesita

Hizkuntzaren funanbulistak.

Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta

Autorea

Jaime Altuna Ramírez

Zuzendaria

Jone Miren Hernández García

LABURPENA

Doktorego-tesi honetan nerabezaroan ematen den hizkuntza-sozializazioan sakondu dut genero ikuspegiarekin. Euskararen biziberritze-prozesuaren baitan gaur egun dauden hizkuntza-dinamika batzuk aztertu ditut ikerketa etnografiko baten bidez. Aisialdi esparruko eremu ez-formalean garatu dudana esperientzia etnografikoaren bidez, euskararen inguruan egin diren azterketetan antzemandako bi gabeziari aurre egin nahi izan dizkiot. Batetik, gazteen ikuspegia eta ahotsa ikerketaren oinarria izaten saiatu naiz eta adinaren kategorizazioak eta hari lotutako ezaugarri sozial eta kulturek hizkuntza-praktiketan eta ideologietan duten eragina aztertu dut. Bestetik, hizkuntza gutxitua dagoen testuinguru batean generoa aldagaia hizkuntza-dinamikekin nola gurutzatzen den esploratu dut. Ikerketan, beraz, zenbait neraberengatik hizkuntza-praktikak, bizipenak, ideologiak eta gogoetak jaso ditut. Batez ere, gaur egun Euskal Herrian 11-16 urte bitarteko gazteen arteko hizkuntza dinamiken berri jaso dut, aktoreen iritzia eta hausnarketatik abiatuta. Horretarako behaketak, elkarrizketak eta talde-erabakidurak burutu ditut eta Epistemologia Feministaren oinarriak erabili ditut alderdi metodologikoa diseinatzeko eta garatzeko orduan. Ikerketa kirol eremuko hamar taldetan (10 praktika-komunitate) egin da 130 neraberekin

Ikerketak berretsi digu nerabeen egunerokoan aisialdian garatzen dituzten jarduerak garrantzitsuak direla eta aisialdiko eremu ez-formalean garatzen dituzten talde jarduerak harremana dutela haien hizkuntza-praktika eta ideologiekin, hau da, eremu ez-formalaren hizkuntza-eragina oso kontuan hartzekoa dela. Bestetik, euskararen gaitasunean eta erabilera sozialean garrantzizkoak diren elementu orokor batzuk identifikatu ditut: (1) nerabeen esperientzia linguistikoaren problematizazioaren oztopoa; (2) testuinguruaren eta testuinguruaren iruditegiaren eragina; eta (3) gazte-kulturaren garrantzia. Hizkuntza-praktika horien nolakotasunari begira ondorioztatu dut nerabeen hizketaldietan hizkuntzak eta hizkerak nahasteko joera hau estetikoa eta ideologikoa (ere) badela. Hizkuntza-mudei dagokionez, nerabezaroan esanguratsuak diren aldaketak ematen direla jaso dut, mudarena prozesu metagarria, negoziatua, irekia eta dinamikoa dela ondorioztatuz.



Bestalde, ikusi ahal izan dut genero-sozializazioak bideratutako gorputz dinamikek eta jarduerak eragina dutela nerabeen hizkuntza-praktiketan. Euskararen ardura eta generoaren arteko lotura badagoela agerian geratu da, euskararen biziberritzearen aldeko lana eta funtzioa feminitateari lotuago jarraitzen duela erakusten duten zenbait elementuak jaso baititut. Azkenik, hizkuntza erabileren bidez genero- eta botere-harremanen adierazpena topa daitekeela ondorioztatu dut.